

tresnak ▶ Bilatzaileak


Goibista, euskararentzako proiektu bat plazara

ASTE HONETAN Lengoaia Naturalaren Prozesamenduz (LNP) mintegia izan da Donostian, EHUK Miramar jauregian antolatzen dituen uda ikastaroen barnean, eta Internet hitza aipatu izan da bertan. Euskal Herrian aspalditik ari dira LNP alorrean lanean euskara informatikaren bidez prozesatzeko ahaleginean, eta lan horietako batzuek Interneteko eremu teknologiko berrian eragina izan dezakete.

Izan ere, Interneteko zenbait alor eta LNP oso lotuta daude. Testu bidezko bilaketak, sistema eleanitzak, itzulpenak, ordenadoreak urrutitik erabiltzeko aukerak (Telnet eta beste)... Makinek hitzak —lengoaia— prozesatzeko duten gaitasunean oinarritzen dira Interneten baliabide asko.

Asteazkenean, mahai-inguru bat izan zen Miramar mintegian, eta pare bat proiekturen berri eman zuen bertan Kepa Sarasola EHUKo irakasleak, informatikari euskaldunen IXA taldekoak: beren EDBL datubasea *online* jartzeko proiektua, eta Goibista ezizenarekin bataiatu duten euskarazko bilatzailea.

Goibista delakoa Altavista izenarekin egindako txantxa da; benetako izena beste bat



IXA taldearen guneko sarrera orria.

izango du proiektua gauzatzen bada. Funtsean zera da: Interneteko euskal edukiak bilatzeko eta sailkatzeko tresna bat, bilaketa motore euskalduna. Gaur egunean, Altavista delakoan euskarazko bilaketak egin daitezke, baina modu mugatua: *dirua* bilatuz gero, *dirua* agertzen diren orriak aurkituko dizkizu, baina ez *diru* eta *dirurik* aipatzen direnak. IXA taldekoek dagoeneko garatuak dituzte tresnak euskal hitzen formak beren aldaera guztietan

ezagutzeko, eta horietan oinarriturik bilaketa erabat euskalduna egin liteke.

Tresna bikoitza litzateke Goibista: batetik, ordenadore batek Internet arakatuko luke euskarazko edukiak bilatuz. Arakataile horrek euskarazko testuak bakarrik hautatuko litzuke, eta datubase batera iragaziko litzuke lematiztaile batetik: testua tratatuko luke *diruaren* eta *dirurik* agertzen den posizioetan datubasean *diru* hitza gorde dadin. Goibis-

taren bigarren osagarria bilaketa egiteko tresna litzateke: erabilatzaileak hitzen bidezko bilaketa aginduko luke —*diru*, adibidez— eta orri guztien erreferentziak jasoko litzuke ordainetan. Hitz askotako bilaketa zailagoak egiteko ere prestatuko litzateke bilatzaile euskalduna. Esate baterako: “*dirua* eduki” galde-tuz gero, “*dirurik ez daukat*” bezalako esaldiak ere aurkituko litzuke datu-basean.

Egitasmo hori proiektu hutsa da oraingoz. 1997-2000 Zientzia eta Teknologia Planera aurkeztu dute IXAkoek zenbait partaiderekin (UZEI eta Hizkia enpresa, besteak beste). Finantzabideak lortzearen baitan izango dugu

euskaldunok horren tresna interesgarri eta beharrezkoa Interneten. Bitartean, IXA taldeak lanean segitzen du *off-line* (saretik kanpo) beste hainbat proiektutan. Duela zenbait aste beren webgunea ere ireki dute Interneten eta han jaso daiteke beren lanen berri zehatza, euskaraz eta ingelesez. IXA informatikari eta hizkuntzalariz osatutako taldea da eta, bitxia bada ere, webgunearen egilea hizkuntzalarien artekoa da.

▶ IXA informatika taldea
http://www.ji.si.ehu.es/Groups/ixa

WEBGUNEAK

Dantzari eta dantzazaleen orriak

Euskal kulturaren alor desberdinetako jendea ari da Internetera salto egiten. Esate baterako, dantza taldeak eta antzerkia (ikus hurrengo nota laburra). Badira hiruzpalau, euskal dantza talde sarean, eta pare bate gune orokorrago ere bai. Beheko helbideetakoak Euskal Dantzarren Biltzarraren orri ez ofiziala eta Deba Beheko dantza taldeenak dira. Hastapenetan dauden webguneak, baina argazkiz txukun hornituak biak.

▶ Euskal dantzak
http://www.arrakis.es/~gariko/dantza.htm
http://www.geocities.com/Paris/LeftBank/3753

Antzerkia ere bai

Euskal antzerki talde batek ere egin du salto sarera. Maskarada taldea da, eta posta mezu batean iragarri dutenez, euskarazko antzerkiaren historia ere bildu nahi dute gunean. Oraingoz, beren ibilbide, antzezlan eta historiaz dakar informazioa gune honek.

Diseinu erakargarri batekin prestatu du Joseba Barrenexea web egileak, baina badu detaile nekagarri bat: orri bat irekitzen den bakoitzean ez du aurreko pantailakoa ordezkatzeko, eta ordenadorea web orriz betetzen zaizu apurka.

Astun samarra egiten da horrela nabigatu behar izatea...

▶ Maskarada antzerki taldea
http://www.geocities.com/Broadway/5997/
maskarada@mail.com

INFO

Euskal naziotasunaz ikerketa

Estatu Batuetako Kentuckyko unibertsitateko ikasle batek, Tom Davis-ek, euskal herritarrei buruzko analisi politiko-soziologiko bat egin du, posta elektronikoz kontaktatu dituen euskal herritar batzuen galde-egien bitartez. Izenburu luzea du ikerketak (*Identitate nazionalaren subjektibitatea, euskal nazioari atxikipena*) eta haren laburpen bat irakur daiteke Interneten (ingelesez). Nonbait, bi euskal herritar mota daudela aurkitu du Davisek.

▶ Tom Davisen ikerketa
http://kent.edu/~tdavis

eztabaida ▶ Zentsura Geocitiesen

Boikot eskaera bat

Joan den astean aipatu genuen Geocities zerbitzariak ETaren *Alternatiba Demokratikoaren* ingelesezko itzulpena jasotzen zuen gunea ezabatu egin duela. Geocitiesek gutuna bidali dio gune horren arduradunari (Basque Lobby izena hartu duen talde edo pertsona bat) esanez Geocitiesen eduki irizpideak bortxatzen dituela guneak, zehazki “kalte fisiko zein irainen aldeko jarrera zabaltzea” leporatzen dio orrialdeari. Basque Lobbyk ukatu egin du hori, noski, eta orriak beste helburu bat duela dio: “Egun bakebiderako mahai gainean den proposa-

men zehatza eta bakarria zabaltzea”.

Era berean, zerbitzariak esan egiten dio orriaren eragileari zer tankeratako informazioa jarri beharko lukeen orrialdean onargarria izateko. Gatazkaren “irakurketa objektiboa” egiteko eskatzen du “matxinada eta errebolta” zabaldu ordez, hori baita *Alternatiba Demokratikoaren* aldeko orrialdearen helburua haien iritziz. Orriaren kontrako erabakia e-posta bidezko mezu bonbardaketa batekin batera gertatu da. Basque Lobbyk 2.000 mezu inguru jaso ditu aldi berean, “gehienak irain eta

mehatxuz beteta, eskuin-muturrekoen eta parapolizial espainiarren inguruko tonu garbian”, salatu duenez. Bestalde, ezker abertzalearen beste gune batek (Euskal Herria Journal) posta bonbardaketa jasan du berriz aste honetan.

Hori dela eta, Basque Lobbyk Geocitiesen jarrera zentsuratzailerak salatu du, eta deia luzatu du protesta mezuak bidaltzeko Geocitieseko arduradunari. <webmaster@geocities.com>-ra. “Era berean, zerbitzari horretan beren orrialdeak jarrita dituzten euskaldunei dei egiten die bertatik ken di-

tzaten”, dio Basque Lobbyk EGUNKARIAra bidalitako mezuak. Talde horren iritziz “euskaldunok hobe dugu berezko ditugun eskubideekiko errespetu garbia azaltzen duten zerbitzariarekin aritzea, horien artean eta lehen-lehenik adierazpen askatasuna”. Orriak Geocitiesetik kentzeko eskaerak izan du erantzunik euskal eztabaidaguneetan: suizidio moduko bat litzatekeela, eta doako web espaziotik euskal edukiak kentzeak ez lukeela batere ondorio onik.

▶ Protestak igortzeko Geocitiesera (bidali kopia Basque Lobbyra ere)
webmaster@geocities.com

▶ Basque Lobby
basque_lobby@geocities.com
http://www.geocities.com/CapitolHill/8788/